

I. eranskina. Elkarrizketetarako galdetegia.

### 1.AURKEZPENA / *Presentación*

- a. Zenbat urte dituzu? *¿Cuántos años tienes?*
- b. Nongoa zara? *¿De donde eres?*
- c. Bertan bizi zinen txikia zinenean? Norekin? (Aitona-amonak, izeko osabak, familiaren ingurune soziokulturala eraikitzen ahalegindu) *¿Vivías allí cuando eras pequeña? ¿Con quién? (Abuelos, tíos, intente reconstruir el entorno socio cultural de la familia).*
- d. Non bizi zara gaur egun? Norekin? *¿Dónde vives hoy en día? ¿Con quién? El Matrimonio (Cuándo conoció a su esposa (o)? ¿De dónde es originaria? ¿Tiempo de noviazgo? ¿A quién le pidió permiso para casarse? ¿Sus padres estaban de acuerdo? ¿Tenía ella el consentimiento de su familia? Preparativos del matrimonio. Costumbres.) Los Hijos (Número y descripción, relación con ellos.)*
- e. Zein kulturaren parte zara? *¿Cual es tu cultura?*
- f. Zein hizkuntza da bertan ofiziala? *¿Cual es el idioma oficial allí?*
- g. Nola ikasi zenuen hizkuntza hori? *¿Cómo aprendiste ese idioma?*

### 2.ESKOLA / *Escuela*

- h. (Herrialdean) eskolara joan zinen? *¿En (pueblo) fuiste a la escuela?*
  - Erantzuna baiezkoa bada: / *Si la respuesta es afirmativa:*
    - o Zelan izan zen zure esperientzia eskolan? *¿Cómo fué tu experiencia en la escuela?*
    - o Irakasleen gehiengoa gizonezkoak edo emakumezkoak ziren? *¿La mayoría del profesorado eran hombres o mujeres?*
    - o Arazoren bat izan zenuen emakume izateagatik? *¿Tuviste algún problema por ser mujer?*
  - Erantzuna ezezkoa bada: / *Si la respuesta es negativa:*
    - o Zergatik ez zinen joan? *¿Por qué no fuiste?*
    - o Emakume gehiago zeuden egoera berdinean? *¿Había más mujeres en la misma situación?*

- i. Eskolaz gain, gehiago ikasteko aukerarik zegoen herrialdean? *¿A parte de la escuela, había oportunidad para estudiar más en el pueblo?*

### **3.GIZARTEA ETA GENEROA / Sociedad y género**

- j. Ba al zegoen lanik emakumeak soilik edo gizonezkoak soilik egiten zutenak lan?  
*¿Había oficios en los que solo trabajaban hombres o solo mujeres?*
- k. Desberdintasunak zeuden lanbideetan emakumezkoen eta gizonezkoen artean?  
*¿Había diferencias en los oficios entre hombres y mujeres?*
- Erantzuna baiezkoa bada: / *Si la respuesta es afirmativa:*
    - o Ezberdintasun horiek gizartean isladatzen ziren beste eremuren batean? *¿Esas diferencias se reflejaban también en otros aspectos de la sociedad?*
  - Erantzuna ezezkoa bada: / *Si la respuesta es negativa:*
    - o Ez zegoen orduan ezberdintasunik gizartean emakumeak eta gizonezkoak tratatzeko eran? *¿No era notoria entonces ninguna diferencia en el trato hacia las mujeres y los hombres?*

### **4.OBJEKTU ADIERAZGARRIA / Objeto representativo:**

- l. Zein objektu aukeratuko zenuke zure kulturako eta bertako gizartearen adierazle gisa? *¿Qué objeto elegirías como representante de tu cultura y su sociedad?*

### **5.BITXIKERIAK ETA ALDAKETAK / Curiosidades y cambios:**

- m. Bitxikeriaren bat kontatu nahi duzu? *¿Quieres contar alguna curiosidad?*
- n. Zure kulturako edo gizarteko zerbait aldatuko zenuke? Zergatik? *¿Cambiarías algo de tu cultura o sociedad? ¿Por qué?*

II. eranskina. Datuak erabiltzeko baimena.

*CONSENTIMIENTO INFORMADO*

Yo,.....,con D.N.I.....,  
por la presente acredito:

- a) Haber sido informada de los objetivos del Trabajo Fin de Grado realizado por Ainhoa Hormaetxe, con el objetivo de terminar sus estudios de Grado en Educación Primaria.
- b) Acceder a participar en dicha investigación, a través de la realización de una entrevista en profundidad.
- c) Y autorizo a que dicha entrevista sea grabada, siempre y cuando dicha grabación sea utilizada exclusivamente para los fines de dicha investigación y por parte de las personas responsables de la misma.

Y para que así conste, firmo la presente en.....a .....

Fdo:

III. eranskina. “Alkira oin-puntetan” istorioa.



# ALKIRA OIN- PUNTETAN

AINHOA HORMAETXE ZARRAGA

# ALKIRA OIN-PUNTETAN

Egile eta ilustratzailea:  
Ainhoa Hormaetxe  
Zarraga

*Lau emakume liluragarrientzako  
eskerrik beroenak, euren bizitza-isto-  
rioen bitartez ikasarazteagatik*

## ALKIRA OIN PUNTETAN

Ba al dago norbait nire ametsean? Kaixo? Aizu, entzuten nauzu? Agian entzun ez, baina irakurtzen zabiltzalakoan nago. Gaur nirekin bidaiatzera gonbidatu nahi zaitut. Normalean hurrengo egunean amak galdetu egiten dit amesturikoaz, baina sekula ere ez dut gogoratzen.


Ene! EZ dut nire burua aurkeztu ere ez egin! Alkira naiz, Ozeano Barean





aurkitzen den Tonga uhartediko hiri-buruan bizi naiz, Nuku'alofa du izena. 11 urte ditut eta badakizu zer? Munduan zehar bidaiatzea gustuko dut. Egunez egitea ezinezkoa da, nire gurasoek ez dutelako hainbeste diru. Orduan, ohera goizetik sartu eta ametsetan bidaiak laburrak egiten ditut. Gaurkoan zu zaudenez, bidaiak luzeago egin dezakegu.

Itxaron, sekretutxo bat kontatu behar dizut. Gauero, ohera sartu aurretik, logelako ispilu aurrean oin-puntetan jarri eta nora bidaiatuko dudan pentsatzen dut. Zer deritzozu bidaiak luzeago bat egiten badugu? Ea ba, oin-puntetan jarri eta erabaki dezagun nora joan. Nik ez dakit non bizi zaren zu, hortaz, munduko gainontzeko kontinenteak ezagutzea ez legoke batere txarto, ezta?



## 1. KAPITULUA

## KANOKUPOLU

Ze goxo. Gaur goizean izara garbiak jarri ditut, eta nire aitona-amonek erabiltzen zuten xaboiaren usaina daukate. Usain honek txikiagoa nintzeneko oroitzapen asko ekartzen dizkit burura. Udak aitona-amonekin igarotzen nituen jaio nintzenetik, Kanokupolu herrian. Hiriburutik oso hurbil egon arren, gustuko nuen nire neba Maxekin hondartzara joatea, aitonarekin josketan aritzea eta amonarekin zuhaitz baten




gerizpetan hitz egiten orduak ematea.

Amonak Euskal Herrian bete zituen bere unibertsitateko ikasketak. Harrigarria izan daitekeen arren, esperientzia hura bizitzeko aukera zuela konturatu zenerako bidai guztia prest zeukan. Oso bizkorra eta ausarta zen amona. Euskal Herrian 5 urtez bizi izan zen, eta horregatik dakit nik euskaraz hitz egiten eta idazten. Egondian zehar, kultura ezberdinetako hainbat emakume ezagutu zituen. Beti esaten zidan oso aberasgarria izan zela berarentzat emakume horiek ezagutu eta haien laguna izatea.

Horregatik, uda guztietan haien inguruko istorioak entzuten nituen. Uda horiek izugarriak ziren, egunero egoten ginen elkarrekin, nahigabe aitona eta amonaren esperientzietatik ikasten.





Jada 2 urte dira amona hil zenetik eta une hartatik aurrera aitona gurekin bizi da, eta ez gara Kanokupolura bueltatu pena handia ematen baitigu amona ez egoteak. Azken finean, gaztea naiz, baina badakit familiako senideak galtzea ekidin ezin dugun zerbait dela. Hortaz, haiekin ematen dugun denbora ahalik eta gehien aprobetxatu behar dugu. Badakit! Zerbait bururatu zait oraintxe bertan. Oin puntetan jarrita kontinenteak ezagutzera joango garela erabaki dugu, baina, kultura horietako gizarteak errealitatean antzemateko zer deritzozu amonaren istorioetako emakumeen herrietara bagoaz haien inguruan dakidana kontatzen dizudan bitartean?

Gainera amonak esan zidan emakume horiek nagusiagoak zirenean haien herrialdeetara bueltatu zirela. Imaginatu



haiekin topo egiten dugula! Zein ondo!

Amonaren omenez amestuko dugu gaur, irrikatan nago.

- Kika, zer egiten duzu hemen? Ametsa hasi berri da eta!



Kika noizean behin nirekin bidaiari datorren kasuariora da. Badakizu zer den? Ginea Berria eta Australia inguruan bizi den hegaztia da. Hegaztia izan arren, kasuarioek ez dute hegan egiten, hego oso txikiak baitituzte. Ia 2 metroko garaiera eta pertsona heldu baten pisua dauka Kikak eta nire ametsetan hegan egiteko aukera duenez, ilusio handiz eramaten nau herrialde batetik bestera. Egia esan, munduan zehar ari nago mugitzen lagundu ahal digu. Gurekin etortzera gonbidatuko dugu, ezta? Ene! Argi dago pozik dagoela, bere gainean jesartzeko keinu egiten du eta...

- Ongi da, goazen Kika!



## 2. KAPITULUA

## AIZU KIKA!

Begira! Hego Amerika da, Andeak ikusten dira urrunean, Hego Amerika zeharkatzen duen munduko mendikaterik luzeena. Gu Andeen iparraldera goaz, Perura, bertakoa baitzen Nika. Santo Tomas herrian bizi zen, bere guraso eta neba-arrebekin. Familiako gainerako kideak, izeko-osabak, aitona-amonak eta lehengusu-lehengusinak ere, herrian bizi ziren. Peruko hizkuntza ofiziala gaztelera da, baina benetan,



hizkuntza ofiziala kitxua izan beharko zela zioen Nikak. Amonari kontatu zion ez amak ezta amonak ere ez zutela kitxua hitz egiten, Peruko eremu oso murriztu batean baino ez delako mantendu. Badirudi kitxua bertako kulturaren oinarri nagusietako bat izan zela, Nikarentzat garrantzi handikoa.


Eskola-garaiari buruz hitz egitean irribarre egiten zuen Nikak. Izan ere, eskolan ikasi zuen gaztelera, eta deneztarik egiten zuten: korrika, dantza, mozorroen prestaketa eta jaiegunetarako antolaketak. Adibidez, Santo Tomas eguna edo amaren eguna ilusio handiz ospatzen zuten. Eskola horretara zihoazen ikasleak neskak ziren bakarrik, eta irakasleak emakumezkoak ziren denak. Ondoren institutura igaro zen. Ikusten duzu bertan?



- Kika abiadura moteldu pixka bat, mesedez! EZ digu institutua ikusteko denbora emango, eta herriko bakarra da!

Bertako ikasleen artean neskak eta mutilak elkarturik zeuden, baina irakasle guztiak gizonezkoak ziren. Azken hau gogoratzen zuen bakoitzean Nika harritu egiten zen, eta azalpen bat birlatzen ahalegintzen zen. Bere esanetan, "institutuko irakasle gehienak kostaldetik zetozen, egoera hobean zeuden herrialdeetatik. Orduan suposatzen dut emakumeak ez zirela ausartzen egunero lanera joateko hain bidaiak luzeak egiten".

Garai honetan asko dibertitzen zela eta oso ondo pasatzen zuela zioen, beste herri batzuetako ikasleak ezagutzen zituztelako.



Lehenengo mailan gela bakarrean ikasle asko ziren, betiere mutilen kopurua neskena baino handiagoa zen. Azken kurtsoan, aldiz, ikasle gutxi zeuden, bidean askok ikasketak utzi edo herriz aldatzen zirelako.

Nika oso azkarra eta langilea zen, eta ikasketak jarraitzen lagundu zioten bere gurasoek. Horretarako, Limara joan eta urte batez osabaren etxean bizi ziren egon zen. Akademia pribatu batean unibertsitateko sartzeko azterketarako prestatu zuen bere burua, eta hurrengo urtean, psikologiako ikasketak hasi zituen. Berak erizaintza ikasteko gogoia izan zuen betidanik, baina bere aitak psikologia ikastera behartu zuen. Hasiera batean ez zegoen ados aitaren erabakiarekin, baina denbora aurrera joan ahala, psikologiaren erabilgarritasunaz liluratu zen.



Begira, hor dugu Lima! Zein handia den!

Unibertsitatean emakumezko eta gizonezko irakasleak zeudela zioen Nika. Liman, Peruko hiriburuan, eskola erraldoiak zeuden, milaka ikasle hartzen zituzten bere baitan. Batzuk neskenak, beste batzuk mutilenak eta beste hainbeste mistoak. Eskola-mota edozein izanda ere, aukera berdina zituzten neskek zein mutilek. Hala ere, lanbideetan ezberdintasunak nabariak ziren. Esate baterako, pertsonekin harremanetan egotea ezinbestekoa zen lanbideetan, emakumezkoak ziren gehienak. Indarra eta leku-aldatzeak oinarrikoak zirenetan, aldiz, gizonezkoak aritzen ziren batez ere. Nika, ahal zuen neurrian, unibertsitateko ordutegiaren arabera lanean ibiltzen zen; dendetan, lagun batekin apaingarriak egiten eta baita



ikasle gazteagoei errefortzuko klaseak ematen ere. Ikasketak bukatuta, eskola askotan psikologo lanetan aritu zen. Gazte askori lagundu zien haien eguneroko arazo eta kezkei irtenbideak bilatzen.

Amonak argi utzi zidan Peruko erlijiorik nabarmenena katolikoa dela. Hala ere, beste hainbat erlijio daude: ebanjelikoa edo adbentista, adibidez.

Nikak 32 urte inguru zituela, bere bizitza erabat aldatuko zuen erabakia hartu behar izan zuen. Peru krisialdi larri batean murgildu zen, eta horrek bere herrialdetik ihes egitera behartu zuen. Berak bazekien beste edonon hobeto bizitzeko eta ikasketak jarraitzeko aukera izango zuela. Orduan, herriko apaizarekin hitz egin eta honek telefono-zenbaki asko eman zizkion.




Honela, Espainiako unibertsitate ezberdinetara gutunak bidaltzeko aukera eduki zuen, eta Euskal Herriko Unibertsitatean psikologia ikasketak jarraitzeko onartu zuten.

Azkenean, Euskal Herrira joan zen bakarrik eta moja batzuekin bizitzen egon zen denbora luzez.

Nikarentzat migrazioa oso onuragarria izan zen, batez ere, lasaitasunean bizitzea zer zen ezagutu zuelako Euskal Herrian. Baina ez pentsa berak Peruko kultura ahaztu zuenik. Etengabe zioen edonora bere herrialdeko zerbait eram beharko balu, kitxua kulturako ontzi zaharren bat aukeratuko zuela. Bere ustez, Peru ederki irudikatuko lukeen objektua izango litzatekeelako.







- Aizu Kika! EZ al da hori Nika? Urte asko igaro arren, amonak erakutsitako jantzi berdinak daramatza. Azkar, hurbildu gaitezen agurtzera!

- Ezin dut sinetsi. Zu Alkira zara! Zure amona oso pertsona eskuzabala zen. Askok pozten naiz zu ezagutzeaz, benetan.

- Nika, zer moduz? EZ al da zure amona hemendik egongo ezta? Berataz asko hitz egiten zenion amonari eta.

- EZ laztana, orain dela urte batzuk hil zen. Baina beti daukat gogoan berak iloba guztioi esaten zigun hitz bat: "minka". Familiako kide guztiak elkartzean gazteenoi bera laguntzeko erabiltzen zuen kitxua hizkuntzako hitza da. Bazenekien kitxua dela gure kulturaren oinarria?



- Bai horixe! Amonak zutaz ikasitako guztia azaldu zidan, eta horri esker, Peruko kultura asko ezagutu dut! Nika, mila esker guztiagatik. EZ nekien ezagutuko zintudanik, baina zurekin hitz egitera bueltatuko naiz, ziur egon. Besarkada bat emango didazu?

- Nola ez! Eta bueltatu nahi duzunean Aikira.



### 3. KAPITULUA

## EZIN DUT SINETSU!

- Kika, ederto zoaz! Afrika ikusten da!

Orain, Etiopiarra hurbilduko gara, bertakoa baita Elina. Etiopian 83 hizkuntza ezberdin hitz egiten dira, eta bakoitzarekin, janzkera, ohitura, dantza eta janari ezberdinak daude. Badirudi gehienak musulmanak eta ortodoxoak zirela. Elina eta bere familia guztia ortodoxoak ziren eta erlijio honek alde on



eta txarrak dituela esaten zuen. Alde batetik, balore asko bereganatzen dituzte eta familia barruan errespetua asko lantzen da txikitatik. Beste alde batetik, Elina bere erlijiotik aldatuko lukeen aspektua dago. Badirudi, emakumeak gutxiesten dituztela, eta beti gizonetzkoen azpitik daudela. Azken finean, beldurtuta egoten dira emakume gehienak eta bizitzan aurrera egiteko oztopoa bihurtzen da beldur hori.

Hauxe hiriburua da, Addis Abeba, eta 105 milioi biztanle baino gehiago ditu. Ikusten duzu hor azpian dagoen eskola hori? Eskola publikoa da, eta bertan Elinak bi urte eman zituen ikasten. Neskak eta mutilak nahasturik zeuden, kristau eskoletan horrela egiten zelako.



Garai hau pozik gogoratzen zuen Elinak, lagunekin jolasean baitzegoen etengabe. Hala ere, irakasleen inguruan adierazten zuen gizon gehiago zeudela emakumeak baino eta hori horrela izan arren, haien oroitzapen ezkorra zuen. Badirudi, ikasleek zerbait oker egiten zuten bakoitzean mindu egiten zituztela. Eskolan, amharera era egokian erabiltzen ikasi zuen. Amharera, Etiopiako hizkuntza ofiziala da. Eskerrak Etiopia ez zela kolonizatua izan, horri esker mantentzen baita hizkuntza gaur egun. Gainera, bitxia suerta daiteke, baina badute haien egutegia ere. Nuku'alofan 2019. urtean gaudenean, Etiopian 2011. urtea da, 8 urte gutxiago. Urteberri eguna, esate baterako, irailaren 11n ospatzen dute.

Urrunean ikusi daitekeen etxebizitza horren atzealdeko eraikinean buru-

tu zituen Elinak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa. Amhareraz gain, ingelesa asko erabiltzen zuten, eta lagun berri asko egin zituen garai honetan. Izatez, inguruko herrietatik ikasle asko joaten ziren bertan ikastera. Behin ikasketak bukatuta, Elina oso gaztea zela, ezkondu egin zen ezagutu zuen mutil batekin. Berarekin bi seme-alaba izan zituen eta une hartatik aurrera, etxean geratu behar izan zen seme-alabak zaintzen.

Urte batzuk beranduago, bera baka-rrik geratu zen bere ama, seme eta alabarekin, eta Elinaren esanetan “bizitza bilatzeko” alde egin zuen. Euskal Herrira joan zen 29 urterekin, Etiopian bere familia guztia utzita. Hilabeteak igarota, etxebizitza eta lana lortu zuen eta bere seme-alabak Euskal Herrira joateko aukera izan zuten. 14 eta 11 urte



zituzten garai horretan, eta Etiopian hasita zituzten ikasketekin jarraitu zuten. Hasieran ez zen batere erraza izan haientzat, alabak adibidez, egunero egiten zuen negar eskolara zihoan lehenengo 6 hilabeteetan zehar.

EZ da batere erraza beste herrialde batera joan eta ezberdina den testuinguru batean bizitzea, bertako hizkuntzak ikasteko. Hori horrela izanda ere, eskolak eskaintzen zizkien baliabide eta laguntza ezberdinekin, euskara eta gaztelera ikasi zituzten. Amonak kontatu zidanaren arabera, Elinaren seme-alabak harritura zeuden Euskal Herriko eskoletako egoerarekin. Ikasleak uneoro mugikorrekinekin zeuden ikasgelan, eta irakasleenganako errespetua galduta zuten. Elinak argi uzten zuen Etiopiako eta Euskal Herriko egoerak ez direla egoiak, kontrako mugak baizik: Etiopian



irakasleen ikasleekiko tratua oso txarra da. Hala ere, Elinak zioen egoera gutxinaka-gutxinaka aldatuz zihoala, eta bere ustez hoberantz egingo zuen.

Elina txikia zenean, ume guztiak bezala, ametsak zituen etorkizunari begira. Honek artista edo hegazkineko laguntzailea izan nahi zuen. EZ pentsa amets hutsean geratu zenik, amonari kontatu zionean ere, artista izaten jarraitu nahi zuen. Bazekien bere bizitza erabat aldatu zela ezkondu zenetik, baina noizbait bere ametsa betetzeko ilusioarekin jarraitzen zuen eta hori miresgarria dirudit!

Gogoratzen naiz amonak noizbait galdetu ziola Elinari bere kulturaren aspekturik gogokoenaren inguruan. Elinak honako hau erantzun zion: “orain badakizu mundu guztiko kulturak eza-



gutzeko elkarrizketak egiten ditudala telebistako programa batean, besteen kulturak ezagutzea eta nirea erakustea benetan maite dudalako. Beraz, elkarrizketa hauek aurrera eramateko partaideak elkartzerakoan, Etiopian ohikoa den zerbait erabiltzen dut: krispetak eta kafea jartzen ditut mahaietan, eta hitz egiten dugun bitartean edan eta jan egiten dugu. Esango nuke, pertsonekin batzerakoan sortzen dugun giroa eta momentua dela nire kulturatik gehien gustatzen zaidana.”

Amonak esan zidan Addis Abebako eliza ondoan bizi zela Elina. Kafetegi horretako terrazan jesarrita dagoen emakumea izan zitekeen?


- Barkatu, Elina ezagutzen duzu?

- Ni naiz gaztetxo. Ezagutzen al zaitut?



- Ene! Ezin dut sinetsi! Alkira naiz, nire amonarekin eman zenituen zenbait urte Euskal Herrian.

- Hau Jaungoikoaren oparia izan behar da! Askoko pozten naiz zu ezagutzearaz, Alkira. Zer egiten duzu hemen?



- Ametsetan nabil, eta amonak kontatutako istorio guztiak errealitate bihurtzen nabil.

- Zelako ideia ona! Ba gauerdia izango da jada, beraz, ametsarekin jarraitu beharko zenuke. Gainera, beste kultura batzuetatik milaka gauza ikasten dira, eta asko aberasten gaitu. Kontuz ibili eta asko ikasi txiki!

- Mila esker Elina, bueltatuko naiz egunen batean. Hurrengora arte!




#### 4. KAPITULUA

## AHALIK ETA HIZKUNTZA GEHIEN

Iparralderantza joango gara orain, Europara!

- Kika badakizu Ukrainara joaten, ezta? Han bizi baita Aliba, amonaren beste lagun bat. Bai, hemendik oso ondo goaz, Ukrainaren inguruan Bielorrusia, Polonia, Eslovakia, Hungaria, Errumania, Moldavia eta Errusia daude eta.





Hortxe dugu Dnipro, Errusiako mugatik Poloniako mugatik baino hurbilago dagoen Ukrainako hiria. Errusiatik geratuago egonda, Aliba eta bere familiak errusieraz hitz egiten zuten etxean. Eskolan, aldiz, ukrainera da erabiltzen den hizkuntza bakarra. Herrialde honetako eskola guztiak publikoak dira, baina horietan ikasteko ordaindu egin behar da. Irakasleak emakumezkoak eta gizonezkoak direla esan zidan amonak, eta Alibak zioenez, “Ukrainako emakumeek indar handia dutenez, ez dago inolako ezberdintasunik gizonen eta emakumeen artean”.

18 urterekin Euskal Herriko mutil batekin maitemindu eta hilabete batzuetara ezkondu egin ziren. Alibaren familia oso pozik zegoen, Ukrainan ezkontzak gutxienez bi egun irauten baitute. Lehenengo egunean, beste hainbat herrial-





deetan bezala, eztei-jantzi eta trajea-  
rekin elizan ezkontzen dira. Ondoren,  
jatetxe handietan bazkaldu egiten dute  
eta dantzan aritzen dira leher eginda  
egon arte. Bigarren egunean, ordea, ka-  
leko arroparekin jantzi eta kaleetatik  
dabiltza urarekin jolasean, gonbidatu  
guztiek aurpegia makillajez eta kolorez  
dutela.

2 urte beranduago, bere lehenengo  
semea izan zuten, Volya izenekoa. Bes-  
te 3 urte geroago, haien alaba Faida  
jaio zen. Momentu hartan, Ukrainako  
egoera politiko zein ekonomikoa oker-  
tzen hasi zen, eta Alibaren senarrak  
Euskal Herrira joan nahi zuen. Hasieran  
Aliba ez zegoen batere konbentziturik,  
baina hilabeteak pasatuta eta Ukrai-  
nako egoera ikusita, erabakia argi ikusi  
zuen: bere seme-alabek bizitza-kalitate

hobeagoa izateko Ukrainatik alde egin  
behar zuten.

Behin Euskal Herrian zeudela, berriz  
ere ezkontzea erabaki zuten, senarra-  
ren familiak ere ezkontzan parte hartu  
egin ahal izateko. Aldi berean, seme-  
alabak eskolatu zituzten Bilboko ikas-  
tola batean. Volya nahiko galduta eta  
urduri ibili zen eskolako lehenengo bi  
hilabeteetan. Eta ez zen batere erraza  
izan testuinguru berri hartara egokit-  
zea eta hizkuntza berriak ikastea. Vo-  
lyaren arreba txikiak, berriz, ez zuen  
inolako zailtasunik eduki, oraindik Faida  
txikia zen eta. Bada, Faidak badaki zein  
hizkuntza erabili egoeraren arabera:  
ikastolan dagoenean, euskaraz edo gaz-  
teleraz hitz egiten du, nebarekin jo-  
lasean badago, errusiera darabil. Oso  
azkarra da!



Alibari oso aberasgarria iruditzen zitzaion ahalik eta hizkuntza gehien jakitea. Orduan, ez zuenez nahi seme-alabek jada zekiten errusiera alde batera uztea, errusiera lantzeko eskoletara eramán zituen. Suposatzen dut, egun jakingo dituzten hizkuntza guztiei esker inguru ezberdinetako pertsonekin komunikatzeko aukera paregabea izango dutela. Zelako zortea! Niri ere gustatuko litzaidake hizkuntza mordoa jakitea...


EZ pentsa, Aliba ere euskara eta gaztelera ikasteko eskoletara joan zen urte oso batez. Berarentzat ezinbestekoa zen horiek menperatzea, bere senarraren familiarekin komunikatu ahal izateko.

Zirudenez, Euskal Herrian ukrainar asko bizi dira eta horien gehiengoa,



“Ukraina-Euskadi” izeneko erakunde batean sartuta daude. Aliba eta bere familiak erakunde honek antolatzen zituen ekintzetan parte hartzen zuten, haien kultura hurbil sentitzeko modurik onena zelako. Bertan, honakoak prestatzen zituzten: jolasak, buztin-ontziak eta bestelakoak burutzeko eskulanak, bazkariak, Ukrainako jaiegunen prestaketa, besteak beste. Adibide gisa, apirilaren 28an ospatzen duten Ukrainako pazko-astea da. Euskal Herrian egon arren, mezetara doaZ, jolasekin batera egun horietako ohiko janaria jan eta barbakoa erraldoia antolatzen dute erakundeko gainerako pertsonekin batera. Ekintza guztietarako haien kulturako arropa tipikoekin janZten dira; fraka zuriak eta bordatuz beteriko alkandora zuriak eramaten dituzte.





Aitortu dudanez, garrantzia handia ematen diote senide eta lagunekin elkartzeari, eta baita haien kulturako ohiturak ospatzen jarraitzeari. Hori dela eta, Alibak bere erlijioa ezinbestekotzat hartzen du. Erlijioak bere baitan kultura, hizkuntza, tradizioak, janzkera eta janaria hartzen baititu. Ene! EZ dut esan! Ukrainako biztanle gehienak sines-tun kristauak dira.

Alibak Euskal Herrian bizi nahi zuen, eta ez zien bere seme-alabei nagusitan Ukrainara joatea gomendatzen. Egoera gero eta txarragoa zen, den-dena garestitu zen eta haurrekin zerikusia zuten gauza guztiak lortzea oso zaila zen: eskolaz kanpoko ekintzak burutzeko oso bidaiak luzeak egin behar zituzten, medikura joateko edo medikamenturen bat erosteko asko ordaindu behar zuten, adibidez. Izatez, garestiagoa zen



pertsona bakarra Ukrainara oportretan joatea, Ukrainatik Alibaren familia guztia Euskal Herrira bidaiatzea baino.

- Hara! Kika hurbildu zaitez hemen azpian dugun eliza horretara. Ziur nago norbaitek Aliba ezagutuko duela.

- Kaixo, ezagutzen duzue Aliba?

- Здрастуйте.

- Zer? Badirudi hauek ez dutela euskaraz ulertzen.

- Nik bai! Aliba esan duzue? Nire amada eta.

- Faita zara?

- Bai! Zergatik dakizu zuk nire izena?

- Nire amona zure amaren laguna zen eta Euskal Herrian topo egin zuten.



- Hori bai kasualitatea! Ni eta nire neba Volya oportretan gaude hemen. Amak, ostera, urte batzuk daramatza. Guk 18 urte betetzean, Ukrainako egoera nola zegoen jakin nahi zuen amak eta zertxobait aldatu zela ikustean, bertan gelditzea erabaki zuen.

- Ez nuen hori espero!

- Bai, bizitzak buelta asko ematen ditu. Orain joan beharra daukat, batzar bat daukadalako baina esango diot amari hemen egon zarela, ados?

- Ederki Faita. Pozten naiz zu ezagutzeaz, goraintziak amari! Goazen Kika!



## 5. KAPITULUA

EZKONTZEKO PREST  
GAUDELA


- Hori da Kika, hego-ekialderantz jo behar dugu. Bide hau jarraituz ederto goaz!

Irakurle, zer moduz doa bidaiak? Gustuko duzu? EZ nuen uste amonak kontaturiko hainbeste gauza gogoratuko nituenik.



Ongi da, jarraian, MariVanera goaz, Iranen aurkitzen den Kurdistan probintziako hirira. Bertan bizi da Maraia, amonaren laguna. Maraia jaiotzetik bizi zen han, guraso eta nebeekin batera. Eskolara joan aurretik, Kurdistane-ko hizkuntza ofiziala izateaz gain bere ama-hizkuntza zena ikasi zuen etxean: kurduera. Behin ikasketak hasita, persiera ikasi zuen, hizkuntza horrekin ematen baitzituzten eskolak. Horregatik Maraiak amona ezagutu zuenean testuinguruaren arabera hizkuntza batean ala bestean hitz egiten zuen. Laneko gai profesionaletan aritzeko, adibidez, persiera erabiltzen zuen. Lagunekin edo familiarekin hitz egiteko, aldiz, kurdueraz hitz egiten zuen.





Begira! Hori esango nuke dela Maraiaren eskola! Amonak esan zidanez, mistoak dira Iraneko eskola guztiak eta eskolara joateko txandak daude; goizetan neskak joaten dira, eta arratsaldeetan mutilak. Nesken irakasleak emakumezkoak ziren, eta mutilenak, oster, gizonezkoak. Badirudi Maraiak ez zuela eskola honen inguruko oroitzapen oso ona. Izan ere, lehenengo egunean irakasleak honako hau esan zien: “zein esku erabiltzen duzue idazteko? Altxa ezazue.” Maraiak ezkertia zenez, ezkerreko eskua altxatu eta irakasleak erregela batekin besoan jo zuen hauxe esanez: “Jaungoikoak ez ditu pertsona ezkertiak maite.” Maraiaren gurasoak gertatutakoaz konturatzean, eskolara joan eta eskolak neurriak hartu zituen. Hala ere, Maraiak ikasle bikaina zen eta emaitza oso onak lortzen zituen. Hori



gutxi balitz, etxean bere neba nagusiek zituzten liburuekin, kurduera idazten eta irakurtzen ikasi zuen. Argi dago oso azkarra zela eta ikasteko gogo handiak zituela.

Beranduago, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa ikasten jarraitu zuen hiri berean. Ordurako, Maraiia, nagusiagoa zen eta errealitateaz ohartzeko hasi zen: emakumeek itzelezko mespretxuak jasaten dituzte eskolan, kalean eta baita etxeetan ere. Hau da, Kurdistaneko gizartean gizonetzkoak emakumeen gainetik zeuden. Maraiia, bere egoera aztertzen hasi zen: “ezin naiz kalean nire nebak egoten diren ordura arte geratu, ezin naiz mutilak egiten dituzten kiroleetan aritu, debekatuta izan dut Lehen Hezkuntzan gizonetzko irakasleak izatea, ezin naiz

nire nebek egiten duten moduan hiriko beste edozein auzotara joan, eskolan eta institutuan mutilek ikasi behar ez zituzten jasketan eta sukaldaritzan aritu behar izan naiz derrigorrez... Hori bai, gehien gorroto dudana Hijaba da, emakumeok 6 urtetik aurrera eraman behar dugun islamiar zapia. Benetan gorroto dut! Gainera, 9 urterekin ezkontzeko prest gaudela esaten dute! Umeak besterik ez gara.”

Oso gogorra zen Maraiaren garaian emakumeen egoera. Horregatik, berarentzat bidegabekeriak ziren hauei aurre egitea erabaki zuen, ezin baitzuen gertatzen ari zen hura gehiago jasari. Inpotentzia eta amorruz beteta, emakumeen elkarte batean sartu zen, ezkutuan. Uhe hartan ezin zuen inork jakin elkarte hura existitzen zenik, bestela, adinduna edo adingabekoa izan



arren, kartzelara joango ziren partaide guztiak.

Ordurako, Maraiak 20 urte zituen, eta hiriko mutil batekin ezkondu zen. Azken honek istripu larri bat izan zuen, eta 3 urtez ohean egon zen, mugitu ezinik. Maraiak ikasketak utzi eta bere senarra zaintzeaz arduratu zen. Beranduago, seme bat izan zuten.



Irakurle, ez pentsa Maraiaren senarrak emakumeen elkartearen berri zuenik. Izatez, Maraiak elkartean jarraitzen zuen, hiriko emakumeentzako oso baliagarria zelako bertan egiten zuten guztia: emakumeentzako hitzaldiak ematen zituzten haien eskubideak zeintzuk ziren jakiteko, Iranetik kanpo zeuden alderdi politiko batzuekin harremanetan jartzen ziren laguntza eskatzeko, medikuak zituzten haurdunaldietan arazoak zituztenentzat, ezkontza-hausteetan emakumeek izan zitzaizketen trabei irtenbideak bilatzen zizkieten, eta abar. Azken finean, emakumeen aldeko hainbat eta hainbat ekintza burutzen zituzten.

Maraiaren senarrak zenbait arazo izan zituen lanean eta Espainiara joan zen. 8 hilabete beranduago, poliziak emakumeen elkartea aurkitu zuen eta





partaide asko atxilotuak izan ziren. Maraiak, bere bizitzako erabakirik gogorrena hartu behar izan zuen: mafia bati diru mordoa ordaindu zion bere semearekin Iranetik alde egiten laguntzeko. Hurrengo 3 hilabeteak herrialde askotako mugak pasatzen eman zituzten mafiarekin, ibilbide luze bat jarraituz: Teherán, Barna, Sofía, Errumania, Herculane, Timișoara, eta Madril. EZ zen batere erraza izan bidaia hura. EZ ziren Maraia eta bere semea mafiarekin zihoazen bakarrik izan, beste 16 pertsonekin joan baitziren. Hilabete haue-tan zehar, Maraiak eztabaida asko izan zituen mafiako gizonekin. Amonak esan zidan Maraiak hau kontatzen zuenean amorrua sentitzen zuela oraindik, mafiak oso txarto tratatzen baitzituen emakume guztiak.



Orobat, Errumaniako errefuxiatuen zentro batean egon zirenean, mafiakoek beraien egin nahi zutenaz konturatu zen: “azken mugaldea pasatzeko gurtzatzea ezinezkoa den ibai batera eramango gintuzten! Gurekin akabatu nahi zuten!”. Hortaz, Maraia inoiz baino ausartagoa izan zen, eta poliziara joan zen mafia salatzen. Berari esker, beste hainbat mafia harrapatu eta espetxeratu zituzten.

Azkenean, Madrilera heldu eta zenbait urtez gaztelania ikasten egon ziren Maraia eta bere semea. Beranduago, Euskal Herrira joan eta Bilbon geratu ziren bizitzera. Dakidana da, Maraia- ren semeak ikasketak jarraitu zituela eta euskararekin buru-belarri ibili zela guztiz menperatzea lortu zuen arte. Esfortzu handiarekin semeak ikasketak bukatzea lortu zuen, eta Maraiak Ira-




neko kontu politikoetan jarraitzen du emakumeen eskubideen alde borrokatuz. Egun gauzak zertxobait aldatu dira, eta gero eta emakume gehiago dira haien eskubideak aldarrikatzen dituztenak. Horiek bai kementsuak!

Amonarekin asko hitz egin zuen guzti honi buruz, haien kultura oso interesgarria baita. Halaber, ohituren berri galdetu zion amonak, eta Maraiak honako hau erantzun zion: “nire kultura Mesopotamiakoa da, eta horregatik, milaka urteko historia dauka. Badago tradizio bat, orain dela 5.000 urte sortu zena. Espandan eguna deritzo, martxoaren 10ean ospatzen dena. Egun honetan, maite dituzun pertsoneri sagar bat oparitzen zaie. Baina ez pentsa sagar arrunt bat denik! Iltzez beteriko sagarra da oparitzen dena. Zagros mendiak,



adibidez, iltzez beteta daude. Hauek, hainbat gauzatarako erabiltzen diren landaretxoak dira; espezia gisa sukaldaritzan, lepokoak eta eskumuturrekoak egiteko edota kakorratz-lanetan aritzeko. Beraz, iltzez betetzean sagarra, hauxe sikatu egiten da eta urte asko irauten du. Objektu naturalak erabiltzen dira, antzinako ohitura delako.”



- Kika hor dagoen denda horretara jaitsi gaitezke Espandan sagarren bat ikustera. Zer deritzozu?

Hori da, hemen galdetuko dugu ea norbaitek kultura honen berri ematen digun.

- Kaixo, Aikira naiz.

- Tu Çawa ye??

- Ene, ez naiz konturatu. Nik ez dakit kurduera, eta ez dut ezer ulertzen.

Agian kalearen beste aldean dagoen taberna horretan norbaitek euskaraz jakingo du.

- Kaixo, zuetako norbaitek ba al daki euskaraz hitz egiten?

- Kaixo gaztetxo, nik ulertzen badakit. Zer nahi duzue?



- Nire amonaren lagun baten bila etorri naiz. EZ dakit hemen bizi den, gaztetan Kurdistanetik alde egin behar izan zuen eta.

- Maraiaz hitz egiten ari zara? Nire lehengusina da.

- Benetan? Eta nola dakizu zuk euskaraz hitz egiten?

- Urte asko igaro eta gero bueltatu egin zen hilabete batzutan laneko zenbait kontu argitzeko. Berari esker ikasi dut euskaraz hitz egiten. Eta eskerrak, ezta? Oso garrantzitsua da hizkuntzak jakitea, bizitzan testuinguru ezberdinetako pertsonekin harremanetan jartzeko baliagarriak baitira.

- Arrazoi duzu! Hizkuntzekin munduko kulturak ezagutzeko aukera dugu eta hori izugarri atsegin dut. Mila es-



ker zure hitzengatik, emaiozu Maraiari musu bat nire partez mesedez. Alkira naiz, asko pozten naiz zu ezagutzeaz.

- Ongi da, emango diot musua zure partez Alkira. Hurrengora arte!

Etxera bueltan! Zein ondo, itzela izan da bidaiia. Irakurle, zuri gustatu zaizu? Hainbat herrialde bisitatu ditugu, eta haien kulturaren inguruko datu piloa jaso ere! Konturatu naiz amonak kontatu zizkidan istorio guztiak izugarriak direla. Batzuk beste batzuk baino gogorragoak, baina denak dira itzelezko emakume ausart eta eskuzabalenak. Etengabe, haien inguruko pertsoenez asko arduratu eta etorkizunean bizitza hobea izateko errealitatearen bila lekuz mugitu behar izan direnak.

Argi geratu zait emakume eta gizonezkoen arteko ezberdintasunak orain



dela urte asko existitzen direla. Hala ere, guztion artean berdintasuna bila dezakegu, eta mundu berri bat sortu, ezta?

- Alkira, jaikitzeko ordua da. Joan komunera aurpegia garbitzera laztana.

- Ama, gaurkoan ez didazu amesturikoaz galdetuko ala?

- Alabatxo, ez duzu inoiz gogoratzen amestu duzuna.

- Gaurko bidaiia ez dut inoiz ere ez ahaztuko ama. Munduari bira eman diot eta izugarria izan da!

- Zu bai zu! Ongi da, den-dena hasieratik konta iezadazu.



## IRAKURRITAKOALANTZEN

Ametsetik esnatu ondoren, bakarka edo lagunekin jarri zaitezke hurrengo galdera hauei erantzuteko.

-Zer da amets honetatik gehien gustatu zaizuna? Noizbait bidaiatu duzu ametsetan? Nora? Norbait ezagutu duzu ametsean?

-Zeintzuk dira ezagututako emakumeen arteko ezberdintasun nagusiak? Eta horietatik atentzio gehien deitu dizuna? Zergatik?

-Ezagutzen dituzu beste kulturetako pertsonak? Nongoak dira? Zer ikasi duzu haiei esker?

-Kultura eta hizkuntza ezberdinak ezagutzeak zer nolako onurak dakartza zure ustez?

-Zure kultura eta hizkuntza garrantzitsuak direla esango zenuke? Zergatik?

-Herrialde gehiago ezagutzea gustatuko litzaizuke? Zein? Zergatik?

Partekatu erantzunak lagunekin!

Alkirak berarekin bidaiatzera gonbidatu nahi zaitu. Horrela, munduko herrialde eta kultura ezberdinak ezagutzeaaz gain, txikitan bere amonak kontatutako emakume ezberdinen istorioen berri izango duzu.

Anima zaitez!

9-12 urte

